



## SAHARARI BURUZKO JARDUNALDI AK

ERBESTEA ETA ITXAROPENA

Lekua: **BILBOROCK (BILBO)**

**2017ko maiatzaren 23an**

Orduategia: **09:00etatik 17:00etara**

¿SAHARRAI? BAI 

  
Cooperación  
española

### Chema Anda



Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) gobernuaren osasun-arloko aholkularia.

1984tik 2014ra Gasteizko Santiago Apóstol ospitaleko otorrinolaringologia-zerbitzuko burua izan zen.

80ko hamarkadaren amaieratik, lankidetzaren alorrean lan egiten du osasun-proiektuen arduradun gisa.

ekin 1990ean biztanle saharar iheslarien esparruetan kirurgia-proiektuei zien. Orduetik 3.000 kirurgia-operazio baino gehiago egin dituzte, hasiera batean Rabuniko Ospitale Nazionalean, eta, inauguratu zenetik, egungo ospitalean.

20 urte baino gehiago eman zituen Saharako Osasunaren Koordinazio Bulegoko arduradun gisa, batzorde medikoak eta kirurgikoak eta Saharako Osasun Ministerioak eskatzen zituen lankidetzaproiektuen ebaluazioak antolatzen. Gainera, esparruetan lan egiteko eskaera egiten zuten taldeen ebaluazioa ere egiten zuen, horien egokitasuna zehazteko.

### Pepe Fernández



Munduko Medikuek erakundearen zuzendaritza-batzordearen kidea da eta, 2009tik, Sahararekiko lankidetzaprozesuari laguntzeaz eta hori ikuskatzeaz arduratzen da.

Prozesuaren eta hitzarmenen jarraipenaren jarraitutasuna eta MMren erakundearen ordezkartzaren jarraitutasuna mantentzeaz arduratzen da. AECIDekin eta Saharako Osasun Publikoko Ministerioarekin dituzten harremanetan eta negoziazioetan parte hartzen du, bai Espainiako bai bertako antolaketa-arduradunekin elkarlanean.

### Marta Pajarín García

Politologoa da eta garapenean, nazioarteko lankidetzan eta generoan espezializatuta dago. Proiektuen teknikari gisa lan egin du Munduko Medikuek erakundearen, eta nazioarteko borondatezko lankidea izan da Latinoamerikako zenbait herrialdetan eta Saharako esparruetan. 2010etik Genero eta Garapeneko Masterra (ICEI-UCM) koordinatzen du eta ICEIren Generoaren Alorreko ikertzaile elkartua da. Gainera, hainbat erakunde eta GGKErako lan egiten du kontsultari, aholkulari eta irakasle gisa, honako alor hauetan: generoa, garapena, nazioarteko lankidetzak eta esku-hartze soziala.



### Nekane Aramburu

Nekane pediatra da eta Saharan lan egiten du Mundubat erakundearekin 1996tik, Auserdeko proiektuan.

Mundubat garapenerako gobernu kanpoko erakundea (GGKE) da. 1988. urteaz geroztik, gizon eta emakumeekin, elkarteekin eta hegoaldeko erkidegoekin batera lan egiten du, euren gizartea garatu eta aldatzeko erronketan laguntzeko. Konpromiso solidarioa eta etikoa du –iparraldean ere bai–, eta Giza Eskubideen babesaren eta gizakien garapen jasangarriaren alde lan egin nahi du bi hemisferioetan.

### Ali Salem Iselmu



Gasteizen bizi den Saharako kazetaria eta idazlea da. “Sahararren arteko laguntasunaren belaunaldia” izeneko poeten taldeko kidea da. Taldeak herriaren sufrimenduaren berri eman nahi du, hodei bati jarraituz ametsak egia bihurtu nahi zituzten artzainen istorioen bidez.

11 urte zituela Kubara joan zen eta, han, kazetaritzan lizentziatu zen.

Bakarkako bi liburu idatzi ditu: “La música del siroco” poema-liburua eta

“Un beduino en el Caribe” kontakizun-liburua.

Kazetaritzako jardueran Saharako egoerari buruzko analisiak nabarmendu ditzakegu; horietako batzuk El País egunkarian argitaratu dira.

### Jadiyetu El Mohtar

Dajlan jaio zen eta itzulpengintza eta interpretazioa ikasi zuen Alcalá de Henaresko unibertsitatean. SEBNko kidea eta Espainiako Fronte Polisarioko ordezkartzaren kidea da.

SEBNko nazioarteko harremanen arduraduna ere izandakoa da. Kolonialismoaren garaian *Sahara Libre* mugimenduaren ahotsa izan zen Saharako Irrati Nazionaleko irratian, hain zuzen, gaztelaniaz ematen ziren programen bidez.

Saharako egoeraren berri emateko eta salatzeko lan egiten du, eta lan handia egiten du kanpaina diplomatikoetan, babes politikoak eta humanitarioak lortzeko kausaren eta herriaren alde.



### Aahdjiba el KoriHamdi

Daira bateko kontsultategi baten lehen emakume arduraduna izan zen; hain zuzen ere, 2004ra arte erizain gisa eta batzorde medikoei lagunduz lan egin zuen iheslarien esparruan.

Gaur egun Durangon bizi da eta herrialdeko egoeraren berri emateko aktibista gisa aritzen da elkarlanean.



### Hassanna Aalia



Zonalde okupatuko aktibista sahararra da. 17 urterekin zonalde okupatuetako borroka baketsuko aktibismoarekin konprometitu zen, eta ordutik hainbatetan atxilotu dute eta Marokoko poliziaren eta militarren tratu txarrak eta torturak jasan ditu.

Auzitegi zibil batek 4 hilabeteko espetxe-zigorra ezarri zion Hassanari, eta, geroago, ikasteko beka batekin Espainian zegoela, beste zigor bat jakinarazi zioten: biziarteko kartzela-zigorra, auzitegi militar batek ezarria. Hainbat erakundek, hala nola Human Rights Watch (HRW) eta

Amnistia Internazionale erakundeek, aktibisten kontrako prozesu militarrek gaitzetsi dituzte, berme nahikorik ez dutelakoan. Beste batzuen artean, HRWk akusatuen galdeketetako tortura-salaketak bildu zituen.

Gaur egun, Hassannak kausa eta borroka sahararra zabaltzen du eta kideen askatasunaren alde borroka egiten du.

# EGITARAUA

**BERTARATUTAKOEN IZEN-EMATEA ETA HARRERA: 09:00-9:30**

**09:30-09:45. JARDUNALDIEN AURKEZPENA** Munduko Medikuak erakundearen zuzendaritza-batzordea, Fronte Polisarioa eta DISABI (Bizkaiko diaspora sahararra).

**09:45-10:00: TESTUINGURU OROKORRA**

Txostena: **Erbestetik itxaropenera? Saharari buruzko sarrera historikoa** Lih Beiruk, Fronte Polisarioaren Euskadiko ordezkaria.

**10:00-12:00 OSASUNERAKO ESKUBIDEA, ERREALITATEA ALA UTOPIA? MAHAIA**

10 minutuko 4 txosten izango dituen adituen mahaia eta horren osteko mahai-ingurua

Txostena: **Esparruen egoera sanitarioa** Chema Anda (SEADen gobernuaren osasun-arloko aholkularia, SEADen Osasun Ministerioko ordezkaria).

Txostena: **Osasunerako eskubidea Saharako babeslekuan: borondatearen indarra, baldintzen jarraikortasunaren aurrean** Pepe Fernández (Munduko Medikuak)

Txostena: **Osasuneko lehen mailako arreta** Nekane Aramburu (Mundubat)

Txostena: **Generoa eta osasuna: osasunerako eskubidea genero-ikuspegitik ulertzeko giltzarriak** Marta Pajarín García (Genero eta garapen alorreko ikertzailea eta kontsultaria. Munduko Medikuak erakundeko boluntarioa).

**Adituen eta bertaratuen arteko mahai-ingurua**

Moderatzailea: Eider de Gana. Munduko Medikuak erakundearen borondatezko lankidea Rabounin.

**ETENALDIA (12:00-12:30) SAHARAKO TEA, DATILAK, GAZTA**

**12:30-14:30 ITXAROPENA DIBERTSITATETIK ETA ETORKIZUNEN AUKERAK MAHAIA**

10 minutuko 4 txosten izango dituen adituen mahaia eta horren osteko mahai-ingurua

Txostena: **Etorkizuna eta aukerak, diasporatik.** Ali Salem Iselmu (Saharako kazetaria eta idazlea)

Txostena: **Itxaropena iheslarien esparruetatik eta askatutako lurraldeetatik.** Aahdjiba el Kori Hamdi, DISABI (Bizkaiko diaspora sahararra)

Txostena: **Itxaropena lurralde okupatutik.** Hassanna Aalia (Saharako aktibista eta iheslaria)

Txostena: **Itxaropena nazioartearen eta emakumeen ikuspegitik.** Jadiyah El Mohtar, SEBnko nazioarteko harremanen arduraduna (Saharar Emakumeen Batasun Nazionala)

**Adituen eta bertaratuen arteko mahai-ingurua**

Moderatzailea: Pepe Fernández (Munduko Medikuak erakundeko Sahara Taldea)

**BAZKARI SAHARARRA (14:30-15:30)**

15:30-16:30: **POESIA, MUSIKA ETA SAHARAKO DANTZEN ERREZITALDIA**

**JARDUNALDIEN AMAIERA ETA AGURRA (16:30-17:00)**

Doako sarrera, edukiera bete arte. Bazkariaren kontrola egiteko, mesedez, eman izena helbide honetara idatziz:  
[saharauisi@medicosdelmundo.org](mailto:saharauisi@medicosdelmundo.org)